

Euskal Autonomia Erkidegoko ur-masen egoerari buruzko informazio estatistikoan egondako irizpide aldaketei buruzko oharak. 2022

Ohar honetan deskribatzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ur-masen egoerari buruzko informazio estatistikoaren inguruan, estatistika-organoari aldez aurretik emandako informazioetan egondako irizpide aldaketei buruzko zenbait alderdi.

UR-MASEN ERROLDARI BURUZ

Gaur egun, ur-masen identifikazioa, mugaketa, izaera eta tipologia jasotzen da 35/2023 ¹ Errege Dekretuan, hau da, hirugarren plangintza-zikloko (2022-2027) plan hidrológicoetan. EAEko ur-masen egoerari buruzko aurreko informazio estatistikoetan kontuan hartu da 1/2016 ² Errege Dekretuan jasotakoa, hau da, bigarren plangintza-zikloko (2015-2021) plan hidrológicoetan jasotakoa.

Gaur egungo plangintza-zikloan (2022-2027) plan hidrológikoei egindako berrikuspenek hainbat aldaketa eragin ditu honako kategorietako ur-masen geometrian: urtegiak, aintzirak eta hezeguneak, trantsizio-urak, kostaldeko urak eta lurpeko urak, euren kopuruari eta izaerari eragin gabe, eta, beraz, ez da aldaketarik izan ebaluatu beharreko ur-masen erroldan, ez horien egoeraren ebaluazio-sisteman, ez eta aurreko urteetako ebaluazioetan ere.

Hala ere, plan hidrológicoak berrikusten ari diren **ibaien kategoriaren** kasuan, geometria eta mugaketa aldatzeaz gain, zenbait kasutan aldaketak izan dira esleitutako izaeran. Horrek eragina du ebaluatu beharreko ur-masen erroldan, aplikatu beharreko egoeraren ebaluazio-sisteman eta berriz aztertu behar izan diren aurreko urteetako ebaluazioetan:

- **Ur-masen izaeran aldaketak.** Erabaki da aldatzea Kantauri Ekialdeko Mugapenean dauden ibai kategoriako lau ur-masen izaera: lehen naturalizat kalifikatutako bi ur-masa, Artigas-A eta Igara-A, oso eraldatutzat kalifikatu dira; eta, bestalde, beste bi ur-masa, Izoria eta Arratia, lehen oso eraldatutzat kalifikatutakoak, naturalizat kalifikatu dira.
- **Mugaketan hobekuntzak; presioen izaerari eta uren egoerara egokitzearen ondorioz.**
 - Kantauri Ekialdeko Mugapenean banatu egin da Nerbioi II ur-masa, Nerbioi eta Ibaizabalen beheko tartek biltzen zituena, eta horrela berezitate bi masa espezifiko sortu dira, Nerbioi II eta Ibaizabal IV, erregimen hidrológico desberdina dutelako eta jasotzen dituzten presioen izaera desberdina dutelako.
 - Ebro Mugapenean, Zadorra ur-masa Uribarriko urtegitik Dulantziraino hiru masatan banatu da (Zadorra, Uribarritik Santa Engraziaraino; Santa Engrazia, Urrunagatik Zadorraraino; eta Zadorra, Santa Engraziatik Dulantziraino). Bestalde, ondorengo ur masak kendu egin dira: Padrobaso, Baiaraino; Albina masa, Albinako urtegitik Urrunagako urtegiraino; eta Inglares masa, Pipaoneraino.
- **"Berezko atalaseak dituzten masetan egoera ekologikoa ebaluatzeko adierazleak eta mota-aldaketaren mugak"** ezartzea, Mueratik Omecillorako masaren kasuan.

EAEko ur-masen egoerari buruzko 2021eko informazio estatistikoan, EAEn presentzia esanguratsua zuten lurrazaleko 166 ur-masa eta lurpeko 36 ur-masa hartu ziren kontuan, 1/2016 Errege Dekretuan oinarrituz.

EAEko ur-masen egoerari buruzko 2022ko informazio estatistikoan kontuan hartu dira EAEn presentzia esanguratsua duten lurrazaleko eta lurpeko ur-masak, 35/2023 Errege Dekretuan oinarrituz:

- 35/2023 Errege Dekretuaren arabera, ibaien kategoriako 135 ur-masak dute nolabaiteko presentzia EAEn. Hala ere, ibaien kategoriako zazpi ur-masa ez dira kontuan hartu EAEko ur-masen egoerari buruzko 2022ko informazio estatistikoan. Izan ere, ibaien kategoriako sei masa modu esanguratsuan garatzen dira EAetik kanpo, eta EAEn oso gutxi garatzen dira³, eta ur-masa bat goi-ibarreko tartean dago eta oso garrantzi txikia du⁴. Horren guztiaren ondorioz, EAEko ur-masen egoerari buruzko 2022ko informazio estatistikoan ibaien kategorian 128 ur-masen berri ematen da, eta 2021eko informazioan, berriz, ibaien kategorian 127 ur-masen berri eman zen.
- Lurrazaleko eta lurpeko uren gainerako kategorien masei dagokienez, EAEko ur-masen egoerari buruzko 2022ko informazio estatistikoan 2021eko ur-masen errolda bera mantentzen da, hau da, 12 urtegi, 9 aintzira eta hezegune, 14 trantsizioko ur, kostaldeko 4 ur eta lurpeko 36 ur.

Beraz, EAEko ur-masen egoerari buruzko informazio estatistiko honetan (2022), masen erroldak, guztira, lurrazaleko 168 ur-masa eta lurpeko 36 ur-masa biltzen ditu.

Lurrazaleko urak				
Masaren kategoria	Mugapena	Masaren izaera	Masa kopurua 2021ko informazioa 1/2016 Errege Dekretua	Masa kopurua 2022ko informazioa 35/2023 Errege Dekretua
Ibaiak	Kantauri Mendebaldea	Naturala	3	3
	Kantauri Ekialdea	Oso eraldatua	20	21
	Kantauri Ekialdea	Naturala	70	69
	Ebro	Naturala	34	35
Urtegiak	Kantauri Ekialdea	Artifiziala	1	1
	Kantauri Ekialdea	Oso eraldatua	8	8
	Ebro	Oso eraldatua	3	3
Aintzira eta hezeguneak	Kantauri Ekialdea	Naturala	1	1
	Ebro	Artifiziala	2	2
	Ebro	Naturala	6	6
Trantsizio urak	Kantauri Ekialdea	Oso eraldatua	4	4
	Kantauri Ekialdea	Naturala	10	10
Itsasertzeko urak	Kantauri Ekialdea	Naturala	4	4
LURRAZALEKOAK GUZTIRA			166	167

Lurpeko urak		
Mugapena	Masa kopurua 2021ko informazioa 1/2016 Errege Dekretua	Masa kopurua 2022ko informazioa 35/2023 Errege Dekretua
Kantauri Mendebaldea	2	2
Kantauri Ekialdea	19	19
Ebro	2	2
LURPEKOAK GUZTIRA	36	36

EGOERA EBALUATZEKO IRIZPIDEEI BURUZ

Egoeraren ebaluazio-irizpideekin lotutako eguneratzei eta ñabardurei buruzko informazioa zehatz-mehatz aurkezten da Uraren Euskal Agentziaren webgunean, "Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko programak" atalean, "Azken txostenak" ⁵ azpiatalean.

Jarraian, egoeraren ebaluazioari lotutako kontzeptuen laburpena azaltzen da.

Lurrazaleko urak

817/2015⁶ Errege Dekretuan adierazitakoaren arabera, lurrazaleko ur-masen egoera zehazten du haien **egoera** ekologiko eta kimikoaren balio okerrenak.

817/2015 Errege Dekretuan adierazitakoaren arabera, lurrazaleko ur-masen **egoera ekologikoa** saikatzeko, lurrazaleko ur-masa mota eta kategoria bakoitzari aplikatu behar zaizkio kalitate-elementu biologikoen, kimikoen eta fisiko-kimikoen eta hidromorfologikoen euskarri-adierazleak (II. eranskina). Baita kutsatzaile espezifikoentzat kalkulaturako ingurumen-kalitateko arauak (IKA) ere edo, hala badagokio, V. eraskineko IKAk lehentasunezko kutsatzaileentzat.

Oro har, egoera ekologikoaren ebaluazioa 817/2015 Errege Dekretuan adierazitakoarekin eta horri lotutako laginketa-, azterketa- eta ebaluazio-protokoloekin bat datorren arren, aldaketa aipagarri batzuk gertatu dira, hala nola, interkalibrazioaren azken erabakia⁷, lurrazaleko eta lurpeko uren egoera ebaluatze gida metodologiko berriak^{8 eta 9}, adierazleen laginketa-, azterketa- eta ebaluazio-protokolo eguneratuak idaztea¹⁰ eta ebaluazio-sistema berriak ezartzea. Aldaketa horiek, oro har, eta alde aurreko ebaluazioekin alderatuta, exijentzia-maila handiagoa eskatzen dute egoera/potentzial ekologiko ona edo hobea lortzeko, hau da, ingurumen-helburuak betetzeko.

817/2015 Errege Dekretuan adierazitakoaren arabera, lurrazaleko uren **egoera kimikoa**, lehentasunezko substantzien eta IV. eraskineko beste substantzia kutsakor batzuen ingurumen-kalitate arauen betetze mailaren arabera da.

Oro har, lurrazaleko ur-masen **egoera, egoera ekologikoa eta egoera kimikoa** ebaluatze sistemek bere horretan jarraitzen dute estatistika-organoari emandako EAEko ur-masen egoerari buruzko azken informazioarekiko.

Lurrazaleko ur-masa batzuen izaerari eta haien mugaketari dagokienez plan hidrologikoen berrikuspenak eragindako aldaketen ondorioz, 2022ko edizio honetan ur-masa horien egoera berriz ebaluatu da, eskuragarri dauden datuak oinarri hartuta. Berrebaluazio horiek dakarte aldatzea **egoera ekologikoaren** ebaluazioa eta **egoera**-ebaluazioa, azken hori egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren balio okerrenak baldintzatzen baitu, eta, beraz, aldeak egon daitezke alde aurretik emandako informazio estatistikoekin alderatuta.

Lurpeko urak

Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren¹¹ 32. artikularen arabera, lurpeko ur-masen **egoera** haien egoera kuantitatiboaren eta egoera kimikoaren balio okerrenak zehaztuko du.

Lurpeko ur-masen **egoera kuantitatiboa** saikatzeko, jarraitzen da Uraren Esparru Zuzentaraua ezartzeko estrategia bateratuaren 18. gidan garatutako metodologia¹². Ebaluazio-sistema hau estatistika-organoari emandako EAEko ur-masen egoerari buruzko azken informazioa bezala mantendu egin da.

Bestalde, lurpeko ur-masen **egoera kimikoa** sailkatzeko erabiliko dira kutsatzaileen kontzentrazioak eta eroankortasuna parametro gisa erabiltzen dituzten adierazleak, eta 2006/118/CE¹³ Zuzentarauaren 1. eranskinen definitutako kalitate-arauak erabiliko dira, baita aplikagarriak diren Plan hidrologikoetan definitutako ur-masa bakoitzari aplikatu beharreko atalase-balioak ere, guztiak 35/2023 Errege Dekretuan jasoak. Horrez gain, Plan Hidrologiko berrietan atalase-baliorik ez duten parametroetarako erabaki da txertatzea Uraren Euskal Agentziaren 2010ko maiatzeko "Lurpeko Uren Zuzentarauaren II. eranskinen substantzietarako erreferentziazko mailak EAeko lurpeko ur-masetan ezartzea" txostenen finkatutako balioak. 35/2023 Errege Dekretuan definitutako atalase-balioak aplikatzeak irizpide-aldaketak dakartza estatistika-organoari emandako EAeko ur-masen egoerari buruzko azken informazioarekin alderatuz, baina ez du aldaketarik ekarri ebaluazioen emaitzetan.

-
- 1 35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko mugapen hidrografikoetako plan hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.
 - 2 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko mugapen hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.
 - 3 Kantauri Mendebaldeko Mugapen Hidrografikoan: Ason II, Aguera II; Kantauri Ekialdeko Mugapen Hidrografikoan: Añarbe ibaia eta Ebroko Mugapen Hidrografikoan: Ayuda Molinarretik Sarasoraino, Ayuda Sarasotik Rojo ibairaino eta Ega I Istoratik Urederraraino.
 - 4 Ebroko Mugapen Hidrografikoan: Albina masa, Albiñoko urtegraino.
 - 5 uragentzia.euskadi.eus/informazioa/azken-txostenak/webura00-01040102seguimiento/eu/
 - 6 817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa, lurrazaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen kalitatearen inguruko arauak ezartzen dituena.
 - 7 Batzordearen 2018ko otsailaren 12ko Erabakia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentarauarekin bat etorritik, interkalibrazioaren ondorioz estatu kideetako jarraipen-sistemen sailkapenen balioak finkatzen dituena eta 2013/480/EB Erabakia indargabetzen duena
 - 8 Ingurumeneko estatu-idazkariaren agindua, Plangintza Hidrologikoaren hirugarren zikloan ur-masen egoera ebaluatzeko gutxieneko baldintzak ezartzen dituena. 2020ko urriaren 14a.
 - 9 Lurrazaleko eta lurpeko uren egoera ebaluatzeko gida. https://www.miteco.gob.es/es/agua/temas/estado-y-calidad-de-las-aguas/guia-para-evaluacion-del-estado-aguas-superficiales-y-subterraneeas_tcm30-514230.pdf
 - 10 uragentzia.euskadi.eus/informazioa/eae-lurrazaleko-ur-masen-egoeraren-jarraipena-egiteko-protokoloak-lagin-bilketa-eta-laborategi-eta-indize-eta-neurrien-kalkuluak-egiteko/webura00-01040102seguimiento/eu/
 - 11 907/2007 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, Plangintza Hidrologikoaren araudia onartzen duena
 - 12 2000/60/EE Zuzentzarua, uren politikaren eremuan jarduteko esparru komunitarioa ezartzen duena
 - 13 2006/118/EE Zuzentzarua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa, lurpeko urak kutsaduratik eta narriaduratik babesteari buruzkoa.